

**IPURTERRE**  
Ipuin Lehiaketa



**GAZTE  
BEZAIN  
IDAZLE**



**TXIKITTO**

2014ko maiatza

**144**



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,  
Koldo Mitxelena eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri  
eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa  
eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

elkar



editorial



TTARTALO

erein



argitaletxea



ibaizabal



Pamiela  
etxea

## LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa XIV. Ipurterre 2014

...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XIV. edizioa antolatu du. LH eta DBHko ikasleek parte hartzen duten lehiaketak, aurten 1.000 ipuinetik gora jaso ditu. **Hurrengo orrialdeetan saritutako ipuinak irakurtzeko aukera duzue.**

### EDIZIO GAZI-GOZOA IZAN DA AURTENGOA

Gozoa, aurten ere, Eibarko ikastetxe eta ikasleek lan mardula egin duzuelako eta milatik gora lan jaso ditugulako. Baina gazia ere badela esan beharrean gaude, apirilaren lehen egunean KOLDO MITXELENA Txikitto!-ko koordinatzaileak utzi gintuelako. Aldizkari honek Koldoren eskutik eman zituen lehen urratsak eta berak gidatu du esku artean duzuen aldizkari hau joan den martxora arte. Hemen ere igarriko dugu Koldoren hutsunea.

Eskerrak emateko ere aprobetxatu nahiko genituzke lerro hauek: alde batetik parte-hartzaile, irakasle eta epaimahaikideei; eta, bestetik, opari-sortak egiteko materiala eman diguten argitaletxeei (Erein, Ibaizabal, Elkarlanean, Pamiela, Gaumin, Igela eta Ttartalo) eta Yraolagoitia Eibarko liburudendari.

Laster oporrak hartuko dituzue, eta merezitako atsedena hartuko duzue. Datorren urtean ere, ziur gaude aurten bezain beste lan





## Gauzen kolorea



**B**ehin euri zaparrada batekin gauza guztien koloreak galdu ziren... baina eguzkia irten zenean ostadarra irten zen.

Ostadarraren koloreak mundua margotzen hasi ziren. Urdinak itsa-

soa margotu zuen, horiak hondartzak eta basamortuak, berdeak oihana.

Guztiak lan asko egin zuten eta oso nekatuak zeuden. Orduan beltzak lotara joateko esan zien eta gaua margotu zuen.



LH1

LH2

**Lucia Palma Badiola**  
*La Salle Isasi*

## Sukaldariaren ametsa

**B**azen behin, sukaldari bat. Sukaldaria oso ausarta zen eta baita buru gogorra ere.

Bere ametsa mundua ezagutzea zen eta horregatik sortu zuen jatetxe bat: dirua lortu eta mundua ezagutzera joateko.

Behin tarta bat egitea pentsatu zuen, baina osagai bat falta zitzaionez beste osagai bat botu zion tarta nola geratzen zen ikusteko. Itxuraz ona zegoela zirudienez probatu egin zuen. Probatu bitartean hegan egitea zein ederra izango zen pentsatu zuen.



- *Ze ondo!* -egin zuen oihu eta orduan hegan hasi zen. Ezin zuen sinetsi hegan zebilenik.

Pentsatzen hasi zen ea zer egin ahalmen horiekin.

- *Badakit! Txinara joango naiz hango janaria prestatzen ikastera.*

Eta hara joan zen. Txinan asko ikasi zuen eta ondoren Tokiora, Afrikara, Japoniara... joan zen. Bertako tokiak ikusi eta hango jaki ikusgarriak prestatzen ikasi zuen. Hegan egiteko ahalmena zuenez nahi zuen tokira joateko aukera zuen.

Hara eta hona ibili ondoren, bere jatetxearen falta botatzen zuen eta toki desberdinetan ikasitako guztia bere jatetxean praktikan jarri eta horrela aberastea pentsatu zuen. Bidean bere ahalmen berezia galtzen hasi zela konturatu zen eta basora jaitsi zen.

Bere jatetxetik urrin zegoenez ezin zuen oinez joan eta basoko fruituekin tarta bat prestatzea pentsatu zuen, ea horrek beste ahalmen bat ematen zion.

Osagai guztiak bildu eta tarta egin zuen. Dastatu... baina ez zion eragirik egin. Orduan, zerbait falta zitzaioela pentsatu zuen eta fruitu horren bila basoan barneratu zen. Bat batean... txikia egiten zela ohartu zen eta tartarengatik gertatu zitzaioela hori konturatu zen.

Bere ondotik pertsona bat pasatu zen eta bera ez zapaltzeko sator-zulo batera joan zen babestera. Han sator bat ikusi zuen eta galdetu zion:

- *Ba al dakizu non aurkitu dezakedan fruitu txiki eta kolore biziko bat?*

- *Bai, badakit non aurkitu* -erantzun zion sator jaunak, eta hara eraman zuen.

Han oso toki polit bat zegoen. Eguzki izpi batek diamante baten jottzen zuela ikusi zuen eta hara abiatu zen. Bilatzen zegoen fruitua zen eta fruitua hartu eta tarta egin zuen. Tarta jan eta oreinaren bizkortasuna nabaritu zuen. Lasterka hasi eta segituan iritsi zen bere jatetxera.

Azkenik ikasi zituen janariak prestatzen hasi eta mundu osoko jendea etortzen zela konturatu zen. Taberna beti jendez betetzen zenez, jatetxea berri eta aberastu egin zen. Horrela bere ametsa egi bihurtu zen.



LH3

LH4

**Peru Ibarbia Salaberria**  
*J.A. Mogel Ikastola*

## Puppyren loreen lapurreta

**E**gun iluna zen, Eibar oso laino ilunek zeukaten oso osorik estalia eta telebista-ko eguraldi-iragarleak aste-bururako egun zoragarriak iragarri zituen. Silver familiako Elena andereak, bere senar John-i, asteburuan nonbaitera joan behar zirela esan zion, baina Johnek asteburu lasaia igaro nahi zuen eta zalantzan geratu zen. Etxean bi seme-alaba zeuden; semeak Jota zuen izena, eta alabak Jessica. Biek, asteburuan kanpora joateko plana, hondartza batera, igerilekua zeukan hotel batera edo jolasparke batera joatekoa zela pentsatzen zuten eta aitari erreguka hasi ziren. Elenak, berriz, ez zeukan horrelako estiloko oporrik buruan, eta Johni asko gustatu zitzaion Elenaren plana. Hurrengo egunean, Johnek eta Elenak, ordenagailua hartu eta Bilbo-ko Guggenheimen ondoko hotel batean bi gauerako gela hartu

zuten. Jota eta Jessica oso pozik zeuden oporretan zihoazelako, baina gurasoek nora zihoazen esan zietenean, Jessica atzekoz aurrera erori zen zorabiatuta eta Jotari ia-ia bihotzekoak eman zion. Jessica bere onera heldu zenean, Jota negarrez aurkitu zuen eta berak ere negarrari ekin zion.

Ostirala heldu zenean, silvertarren autoa Bilborako bidean zegoen, nahiz eta seme-alabak gogoz-kontra zeuden han. Hotela lau izarretakoa zen, baina hala ere, Jotak eta Jessicak, hain luxu handiarekin flipatu egin zuten, nahiz eta Silver familia aberatsa zenez, bost izarretako hotel pila batean egonda zeuden., baita Dubain kokatuta dagoen zazpi izarretako hotel batean ere (Jessica orduan ere atzekoz aurrera erori zen, baina pozez).

Ostiral arratsaldean Guggenheim museoa bisitatzera joan ziren eta sarrerak saltzen zituen andereak bisita

bi egunetan egin behar zela esan zien, museoa hain handia zenez, arratsalde batean dena ezin zela bisitatu. Museoak zati asko zeuzkan, eta azkenerako onena uzteko, zati ezezagunekin hasi ziren. Jota eta Jessica ez zebiltzan ezer gozatzen eta ikaragarritzko bisigu aurpegia zeukaten museotik irtendakoan. Gurasoak, berriz, oso gustura egon ziren museoan, koadroak... ikusten, eta hurrengo egunean museoaren bigarren zatia ikusteko irrikaz zeuden. Elena andereak ea zer moduz pasatu zuten galdetu zuenean, umeei ikaragarritzko amorrua sentitu zuten, ama zirikatzan ari zitzairela iruditzen zitzairen, umeei zein gaizki pasatu zuten gogorarazi nahi izango balie bezala, baina amari, zoritxarrez, ezin zaio noizbehinka zaplazteko txo bat edo beste eman.

Gauean, Jotak, kalean afaldu nahi zuela esan zuten, eta Jessicari ere pla-



na asko gustatu zitzaionez, gurasoek kalean afaltzen utzi zieten eta Jotak eta Jessicak behintzat eguneko lehen gustuko gauza egin ahal izan zuten. Afari bikaina izaten zebilen, eta gainera eguraldi zein tenperatura bikainak lagundutako afaria zen. Bat batean, museoa zegoen aldetik, oihuak entzun ziren eta Bilbo osoko argia joan egin zen segundo batzuetan: farolak itzali egin ziren, tabernetako argiak joan ziren, etxeak argirik gabe geratu ziren, baita argiz zebiltzan gailuak ere, adibidez telebista. Argia bueltatu zen, baina Guggenheim aldetik zetozen oihuak geroz eta altuago entzuten ziren, baina berandu zenez, etxera bueltatu ziren Silver familiako kide guztiak. Hurrengo goizean, oso goiz esnatu ziren gurasoak, ikaragarritzko irrikaz zeudelako museoaren bigarren zatia ikusteko. Jessicak eta Jotak museoaren interesik ez zeukatenez, lo egin zuten, harik eta goizeko hamaikak arte. Gurasoen presarekin gosari azkar bat egin zuten eta korrika-korrika, Guggenheim museorantz joan ziren.

Heldu zirenean, poliziaaren zinta batek inguratzen zuen Guggenheimeko plaza osoa eta polizia pila bat zebiltzan inguruan, zerbait ezohikoa gertatu izan balitz bezala.

Silver familiako gurasoak larrituta zeuden, Guggenheimerara sartzea ezinezkoa izango zitzaielako, baina badaezpada, John polizia batengana hurbildu eta zer gertatu zen eta Guggenheimerara sartu ahal izango ziren galdetu zion. Poliziak Guggenheimen ezer ez zela gertatu esan zion, baina Puppy txakurrari (Guggenheim aurrean dagoen lorez egindako txakur erraldoiari) buruko loreak desagertu zitzaizkiola gauean, eta Puppy-ri azterketa egin behar ziotenez, plaza osoa itxi behar zutela eta plazan, Guggenheim zegoenez, hau ere itxita geratu behar zen ondorioz. Elenaren eta John-en aurpegiak, momentu hartan, zurbildu egin ziren; Jessica eta Jotak, berriz, aurpegia eguzkia baino argiago zeukaten, baina gurasoen penaz geratu ziren. Egunean zehar gurasoen desilusia oso nabarmena zen, ez zuten ia hitzik esan egun osoan! Gauean, Jessicak eta Jo-

## ***Ez dakit batzuetan zeinek zaintzen duen zein, gurasoek gu ala guk gurasoak, uste dut gurasoek gure behar handiagoa daukatela, guk eurena baino.***

tak, zerbait egin behar zutela pentsatu zuten:

- *Ezin ditugu gurasoak horrela utzi!* -esan zuen Jessicak.

- *Egia da, ezin ditugu horrelako bisigu aurpegiarekin laga!* -Jotak orduan.

Beraz plan bat prestatu zuten, eta planaren hasiera Guggenheimerako plazan hasten zen.

- *Atzo etorri bazen, gaur ere lapurtuko ditu agian beste lore batzuk!* -esan zuen Jessicak, eta Puppy-ren atzean ezkutatu ziren. 23:30ak ziren eta oraindik ez zen ezer gertatu.

- *Agian hamabietan puntuan etorriko da!* -esan zuen Jessicak.

Hamabiak arte itxaron zuten, eta ordua zela hamabiak eta batean konturatu ziren.

- *Hau amorrua!, eta hau zure errua da, lehen esan didazu zuk kontrolatuko zenuela ordua, eta noski nire arreba ganoragabeak nola beteko du bere hitza!* -esan zuen Jotak sutan.

- *Lasai, hemen botoi bat dago, eta agian honekin zerikusia izango du!* -esan zuen Jessicak.

Egia zen, lore baten orde, txakurraren zati hartan, botoi gorri bat zegoen, bikain kamuflatua. Botoia sarkatu zuten, eta Puppyren begietatik argi berde bat ateratu zen.

Bi begietako argiak, txakurraren aurrean zegoen zirkulu batean elkartu ziren, eta zirkulu hartan zegoen lurra, bitan zatitu eta lurraren berrera joan ziren bi zatiak. Jota eta Jessicak zulorantz jauzi egin zuten eta beraiek uste baino sakonera gutxiagokoa zela ikusi zuten.

Behean, mamu itxurako izaki arraro bat ikusi zuten, grisa zen eta nahiko beldurgarria. Airean hegan egin zezakeela ikusten zen, baina ez txoriak bezala, gehienez 50 bat zentimetrotako altuerara egin zezakeen

hegan, ipuinetako mamuek bezala. Jotak zuzenean eraso nahi izan zion, baina Jessicak, askoz zuhurragoa, plan batekin erasotzea pentsatu zuen. Zer egiten zegoen ikusi lehenago, eta lore sorta bat egiten zegoen, baina Puppyren loreekin!! Lore-sorta egiten zegoen bitartean, musika klasiko oso lasaia entzuten zegoen irrati baten bidez. Bat-batean irratia rock-a jarri zuen eta mamua zorabiatzen hasi zen, baina irratia azkar itzali zuenez, ez zitzaion ezer gertatu. Jessicari burutapen bat etorri zitzaion orduan:

- *Nire mugikorraz rock musika jartzten badugu, zorabiatu egingo da eta guk poliziarik deituko diogu!* -esan zuen Jessicak

Eta horrela egin zuten, Jessicak, hey brother kantua jarri zuen bere mugikorrean eta mamua oihuka hasi zen. Gure bi lagunak poliziarik deitzeke aprobetxatu zuten eta loreak bere lekura joan ziren, hau da, Puppyren gorputzera. Jessicak eta Jotak, beraiek lapurretaren heroiak izan zirela inori ez esateko eskatu zioten poliziarik eta egunkarietan azaldu nahi ez zutela ere bai.

Hurrengo goizean, Silver familia Guggenheim museora joan zenean, museoa zabalik ikusi zuten, eta takillako andereari sarrerak doan berrietzeko eskatu zioten, aurreko egunean ezin izan zirelako museoan sartu, eta hala egin zuten. Nahiz eta Jotari eta Jessicari museoa ez gustatu, oso gustora egon ziren, gurasoen aurpegi irribarretsu haiek ikusten, izan ere, gurasoei gu ondo eta zoriontsu egotea gustatzen zaien bezala, guri ere asko gustatzen zaigu gurasoak pozik ikustea. Ez dakit batzuetan zeinek zaintzen duen zein, gurasoek gu ala guk gurasoak, uste dut gurasoek gure behar handiagoa daukatela, guk eurena baino.



LH5

LH6

**Beñat Laskurain Martinez**  
San Andres

## *"Lagun maitea, Euskal Herrian ligatzea zaila dela diote..."*

Neure iritzia guztiz kontrakoa dela esatea gutxi da. Estereotipoz beteriko kaleetan barrena bagoaz, inoiz ez da erreza izango ligatzea, geurea ez den beste nortasun bat baldin badugu soinean.

Geure itxuraz soilik epaitzen gaituzten pertsonaz inguraturik gaude eta tristeena da, gu pertsona horien artean aurkitzen garela egun. Bakoitzaren barnea estaltzen duen irudi hori bakarrik axola zaigu eta patroi estetiko bat jarraitzen dugu beharturik. Horrela, hainbatek, beren izaera maitekorra ezkutatzeko, kanpora ateratzen galaraziz, baztertuak izango diren beldurrez. Ondorioz, ez dugu jendea errealitatean den bezala ezagutzen.

Gutun labur honen bidez askatasunaren oihua entzun dezatela soilik dut desio, eta euren burua estaltzen duten haiei gogoeta momentu bat luzatzen diet.

Bakoitza den bezalakoa da eta ez du inorengatik ez ezerengatik aldatu behar. Nahiz eta batzuetan ikusten zaila izan, denok dugu geure edertasuna eta beti izan ohi gara norbaitentzako erakargarriak. Esan ohi dugu, barrukoak du axola, baina egiaren unean, kanpokoak bultzatzen gaitu barrukoa ezagutzera.

Askotan entzungo zenuten esaldi bat datorkit burura, Zuk ez baduzu zeure burua maite, nork maiteko zaitu? Sarri, gure ospearean azpian hegan joaten gara eta besteen iritzia soilik axola zaigu.

Kritika txarrak entzuten ditugunean barruak erretzen zaizkigu, hori sintoma unibertsala da. Hala ere, min gehien egiten duena, beste batek uste duenaren ondorioz geure itxura eta nortasuna aldatzea da.

Baina taberna izkina batean, norbaiten besoetan musukatzen ari garenean besteen iritzia ez du inongo eraginik gudan.

Horregatik, garena bezalakoa izaten saiatu behar dugu gure izaera kanpora ateratzen utziz. Horrela, ligatzea erreza eta polita izango baita eta ez dugu inoiz berriro entzungo Euskal Herrian ligatzea zaila dela diotenen ahots faltsua. Eta ez Euskal Herrian soilik, edonon, edonoiz eta edonorekin, zu zeu bazara nahi duzuna lor dezakezu.

Besterik gabe, zarena bezala onartuko zaren ustetan agurtzen naiz, eta maitasun nahiz plazerraren zirrara edonon ikusiko dudala amets egiten dut. Gainera, batzuetan, ametsak indarrez eta gogoz amesten baditugu errealitatean suertatu egiten dira.



DBH1

DBH2

**Nerea Olabbarri Gao**

*Mogel Isasi*

## *"Lagun maitea, Euskal Herrian ligatzea zaila dela diote..."*

Nire ustez Euskal Herrian ligatzea beste toki batean ligatzearen antzekoa da. Jende askok esaten du Euskal Herrian ligatzea erronka bat dela, baina nik ez dut horrela ikusten. Hemen ligatzen baduzu, munduko beste punta batean ere ligatzeko aukera duzu, baina hemen ez baduzu erraz ligatzen, posible da beste lekuren batean ere arazoak izatea edo zailagoa egitea. Herrialde desberdinetakoa izateak ez du zerikusirik gehiago edo gutxiago ligatzeko. Herrialde bakoitzean fisiko desberdinetako jendea dago eta pertsona bakoitzari prototipo bat gustatzen zaio.

Ligatzeko modu desberdinak daude. Herrialde bakoitzean bertakoa den hizkuntzaz ligatzen da. Esate baterako, Euskal Herrian, euskaraz edo gaztelaniaz ligatzen da; Frantzian, frantsesez; Alemanian, alemanez eta Estatu Batuetan, ingelesez.

Lurralde bateko ohiturek ere zerikusia dute.

Euskararekin loturik, jendeak uste du euskaraz ezin dela ligatu eta gaztelaniara jotzen du ligatzeko. Horrek ez luke horrela izan beharko. Euskara da gure hizkuntza, gu identifikatzen gaituena. Beraz, kontuan hartu euskara euskaldun askoren zati bat dela eta euskaraz ligatu behar dugula, inolako lotsarik gabe. Utzi gaztelania alde batera eta hasi euskaraz ligatzen, lagun!

Munduko herrialde guztiek ez dute martxa bera, badaude beste batzuk baino martxosoagoak diren herrialdeak eta horrek errazago ligatzen lagun dezake. Los Angeles eta Hollywood, adibidez, oso leku martxosoak dira eta bertan asko ligatzen da. Baina Euskal Herrian herri desberdinetako festetan liga dezakegu. Festarik festa joan, lagun berriak egin, mutil eta neska berriak ezagutu ... hau bai plan ona!

Askotan, diskoteketan, tabernetan edo musika dagoen lekuetan gehiago ligatzen da. Suposatzen dut, musikak zerikusia izan behar duela. Baina gogoan izan, diskotekak ez direla ligatzeko leku bakarrak. Adibidez, atzerrira joatean ere, eta jende berria ezagutzerakoan ligatzeko aukera duzu.

Beraz, badakizu nire iritzia. Hemendik aurrera has gaitezen euskaraz ligatzen, seguraski gehiago ligatuko dugu! Euskaraz ligatu eta kito!



DBH3

DBH4

**Maialen Martinez**  
Mogel Isasi

## Sari banaketa magikoa

**H**orrelakotxea izan zen, joan den maiatzaren 14an, Unibertsitate Laboralean egin genuen Ipurterre Ipuin lehiaketako sari banaketa.

Aurten ere zenbat lan egin duzuen Eibar-ko ikasleek! Milatik gora lan jaso ditugu eta epaimahaiak ez du lan erraza izan aurtengo bost sarituak aukeratzeko.

Goizeko 10.00etan izan zen hitzordua Unibertsitate Laboraleko aretoan. Zintzo-zintzo etorri zineten ikasle, irakasle, irabazle, senitarteko... Guzti guztiak irrikitan sari banaketa zuzenean jarraitzeko.

Aurtengo irabazleak hauek izan dira: LH 1-2 mailan Lucia Palma (*La Salle*); LH 3-4 mailan Peru Ibarbia (*Iturburu*); LH 5-6 mailan Beñat Laskurain (*San Andres*); DBH 1-2 mailan Nerea Olabbarri

(*Mogel Isasi*) eta DBH 3-4 mailan Maialen Martinez (*Mogel Isasi*).

Baina sariak banatzeaz gainera, egon zen bestelako ikuskizunik ere; Txoborro magoak bisitatu gintuen eta ikuskizun bikaina eskaini zigun. Bat baino gehiago aho zabalik lagatzeko moduko magia-saioak egin zituen, bertan zeuden askoren laguntzarekin gainera.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi, zorionak irabazleei, eskerrik asko irakasleei ikasleak ipuinak idaztera animatzearen, mila esker epaimahaikide izan zaretan guztioi eta opari-sortak egiteko liburuak eman dizkiguzuenoi.

Bien bitartean, zuek jarraitu hain fin ipuinak idazten; zeinek daki, etorkizuneko zenbat idazle irten daitezkeen Ipurterretik!





*Txoborro  
magoaren  
munduan*





## MARGO JANGARRIA

**Ez duzue uste zoragarria izan daitekeela?**

**Ez duzue inoiz margoa jateko tentaziorik izan?**

**Ba horrela bada, lasai, hemen duzue-eta konponbidea.**

### ZER BEHAR DUGU?

- 1.- Esne kondentsatua
- 2.- Janarien koloragarria
- 3.- Aukerazkoak: aromak, purpurina jangarria



### NOLA EGITEN DA?

#### Lehen urratsa

Koloragarriak esne kondentsatuarekin nahastu.

#### Bigarren urratsa

Margoak distira izatea nahi baduzue gehitu margoari purpurina jangarria.

#### Hirugarren urratsa

Eta margoak usain gozoa izatea nahi baduzue gehitu esentziak, kanela adibidez. Horrela, umeez, zapore ezberdinekin esperimentatu ahal izango dute, eta koloreekin lotu.



# etxeko SIKALDARIA

## TXOKOBOLAK



Hona hemen txokolatezko bolatxoak egiteko errezeta erraz erraza. Behin egin eta gero, edozein lekutan jateko modukoak, gainera!

### OSAGIAK

- ✓ 4 gaileta-pakete
- ✓ Esne kondentsatu katilu bat
- ✓ Colacao edo txokolatezko txirbilak
- ✓ Bol bat



### Pausoak:

- 1.- Txikitu gailetak zati txiki txikiak egin arte.
- 2.- Bol batean sartu gailetak eta esne kondentsatua, eta ondo nahastu.
- 3.- Sartu nahastura hori hozkailuan 30 minutuz.
- 4.- Hozkailutik ateratzean egin bolita txikiak eta txokolatean pasatu.





**zu margolari!**

**IPURTERRE**  
Ipuin Lehiaketa



**GAZTE  
BEZAIN  
IDAZLE**



**TXIKITTO**

2014ko maiatza

**144**